



II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Getxoko Udala

Getxoko udalaren eta haren erakunde autonomoen diru-laguntzen ordenantza orokorraren aldaketaren behin betiko onestea.

Udalbatzak, 2024ko azaroaren 28an egindako bilkuran, hasierako onarpena eman zion Getxoko Udalaren eta haren erakunde autonomoen dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren aldaketari. Aldaketa horrek 9., 10., 11., 13., 15., 19., 21., 22. artikuluei, xedapen gehigarriari eta xedapen iragankorrari eragiten die, bai eta hizkuntza ez-inklusi-boari buruzko testuan zenbait artikulutan egindako akatsen zuzenketari ere.

2024ko abenduaren 13ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (240. zenbakian) argitaratu zen onespren horren iragarkia. Hala, jendaurreko informazioko izapide bat hastea erabaki zen, 30 egunez, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko ondorioetarako.

Emandako epean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ez denez, Ordenantzaren Aldaketa hau behin betiko onartutzat jotzen da. Aldaketa hau Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan aurreikusitako epea igarotzean sartuko da indarrean.

Hobeto ulertzeko, Getxoko Udalaren eta haren erakunde autonomoen diru-laguntzei buruzko ordenantza orokorraren testu osoa argitaratu da, onartutako aldaketak jasotzen dituena.

Getxon, 2025eko urtarrilaren 30ean.—Idazkari Nagusia, Ignacio Javier Etxebarria Etxeita

**ORDENANTZA OROKORRA GETXOKO UDALEKO ETA HAREN
ERAKUNDE AUTONOMOETAKO DIRULAGUNTZEI BURUZ****Zioen Azalpena****I. Kapitulumua. — Xedapen orokorrak**

1. artikulua. Xedea eta aplikazio-eremua
2. artikulua. Dirulaguntzaren kontzeptua
3. artikulua. Aplikazio-eremutik kanpo uztea
4. artikulua. Dirulaguntzen plan estrategikoak
5. artikulua. Dirulaguntzak emateko baldintzak
6. artikulua. Dirulaguntzak emateko organo eskudunak
7. artikulua. Pertsona eta erakunde onuradunak
8. artikulua. Erakunde laguntzaileak
9. artikulua. Pertsona edo erakunde onuradun izateko baldintzak
10. artikulua. Pertsona edo erakunde onuradunen eskubideak eta betebeharrak.

II. Kapitulumua. — Emateko prozedurak

11. artikulua. Emateko prozedurak

1. atala. — Konkurrentzia bidezko araubidean ematea

12. artikulua. Emateko prozedura eta prozedura hastea
13. artikulua. Deialdien edukia
14. artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa edo hura zehazteko irizpideak
15. artikulua. Eskaerak aurkezteko modua eta epea
16. artikulua. Eskaerak birformulatzea
17. artikulua. Izapidea
18. artikulua. Ebazpena

2. atala. — Zuzenean Ematea

19. artikulua. Zuzenean emateko modalitateak

III. Kapitulumua. — Kudeaketako xedapen komunak

20. artikulua. Azpikontratazioa
21. artikulua. Diruz lagun daitezkeen gastuak
22. artikulua. Justifikatzeko modua
23. artikulua. Justifikatzeko epea
24. artikulua. Dirulaguntzen finantza-kontrola
25. artikulua. Ebazpena aldatzea
26. artikulua. Obligazioa aitortzeko eta ordaintzeko prozedura
27. artikulua. Dirulaguntzen konkurrentzia eta bateragarritasuna
28. artikulua. Itzultzea
29. artikulua. Arau-haustek eta zehapenak.

Xedapen Gehigarriak

Lehenengoa. Hezkuntza, kultura eta zientziaren arloko edo beste edozein izaeratako sariak eta bekak dirutan, publizitatearen eta konkurrentziaren arabekoak badira

Bigarrena. Dirulaguntzak espezetan

Hirugarrena. Jardueretako hirugarren partaideentzako konpentsazio ekonomikoak

Laugarrena. Alkatetza gaitzea Ordenantza aldatzeko



Xedapen Iragankorra

Bakarra. Prozeduren araubide iragankorra

Xedapen Indargabetzailea

Azken Xedapenak

Lehenengoa. Lege-araubidea

Bigarrena. Indarrean jartzea

**ORDENANTZA OROKORRA GETXOKO UDALEKO ETA HAREN
ERAKUNDE AUTONOMOETAKO DIRULAGUNTZEI BURUZ****ZIOEN AZALPENA**

I. Sektorre publikoko jarduera finantzarioaren zati garrantzitsua dirulaguntzen bitartez bideratzen da, laguntza finantzarioko neurriak erabiliz, pertsonen eta erakunde publiko edo pribatuen gizarte- eta ekonomia-eskeei erantzuteko. Ildo horri eutsiz, Getxoko Udalak eta haren erakunde autonomoek baliabide asko erabiltzen dituzte ongizatearen estatuko adierazpen gisa laguntza-jarduerak eta interes publikoa duten zenbait jarduera pribatu sustatzeko, baita herritarren partaidetza indartzeko ere, eskubideko estatu sozial eta demokratikoaren betekizuna baita. Sustapen-ekintza dirulaguntza publikoak ematearen bidez bideratzen da, eta jarduketa-eremuak oso anitzak dira.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta Erregelamenduari buruzko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua onetsi zirenean, beste urrats bat eman zen gastu publikoaren modalitate garrantzitsuenetarikoa (dirulaguntzak) esparrua arauemaile orokorrari dagokionez. Horiei, besteak beste, erantsi behar zaizkie sektore publikoaren arrazionalizazioari buruzko irailaren 16ko 15/2014 Legeak egindako aldaketak, eta administrazio-berrikuntzarako beste neurri batzuek eragindakoak, hala nola, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea eta Sektorearen Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea.

II. Orain arte, Getxoko Udalak dirulaguntzak ematea arautzen duen udal ordenantza izan du, 2004ko abenduaren 30ean behin betiko onartua, baita deialdietan jasotako dirulaguntzen oinarri arautzaile batzuk ere bere zehaztapenari erreparatuta, azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 23. artikuluan dituen aurreikuspenetan oinarrituta.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, tokiko erakundeek dirulaguntzei buruzko oinarri arauemaileak aurrekontua gauzatzeko ezarritako oinarrien esparruan onartu beharko dira, dirulaguntzei buruzko ordenantza orokor baten bidez edo dirulaguntzen modalitate desberdinetarako berariazko ordenantza baten bidez.

Ordenantza honen helburua da betetzea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17. artikuluan xedatutakoa, baita jasotzea ere bere artikuluetan dirulaguntzen arloan indarreko legedia berritu ostean sortutako berrikuntzak, nagusiki 38/2003 Legeari eta garatzen duen erregelamenduari dagozkionak. Gainera, indarreko legedia udal-errealitateari egokitzearen bitartez, behar bezala erantzun nahi die Getxoko Udaleko eta haren erakunde autonomoetako dirulaguntzen jarduera-beharrei.

I. KAPITULUA**XEDAPEN OROKORRAK****1. artikulua. — Xedea eta aplikazio-eremua**

1. Ordenantza honen xedea da dirulaguntzen araubide juridikoa arautzea, bere aplikazio-eremua Getxoko Udala eta haren erakunde autonomoak izanik.

2. Diruz lagundu ahal diren eremuak edo arloak dirulaguntzei buruzko plan estrategikoetan sartutakoak izango dira.

2. artikulua. — Dirulaguntzaren kontzeptua

1. Dirulaguntzat hartzen da Getxoko Udalak edo haren erakunde autonomoek pertsona publiko edo pribatuen alde egindako diru-ezarpen oro, baldin eta hurrengo baldintza hauek betetzen baditu:

- a) Pertsona edo erakunde onuradunen zuzeneko kontraprestaziorik gabe ematea.
- b) Ematea honako hauen mende egotea: helburu jakin bat betetzea, proiektua gauzatzea, jarduera burutzeta, portaera berezia hartzea (dagoeneko eginak edo



garatzekoak), edo egoera bati erantzutea, eta alderdi onuradunak zehazten zaizkion betekizun material edo formalak bete behar ditu.

- c) Finantzatutako proiektuak, ekintzak, jokabideak edo egoerak onura publikoko edo interes sozialeko jarduera bultzatu ala tokiko intereseko helburu publikoa sustatu nahi izana.

2. Ez dute dirulaguntza-izaera izango Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea Orokorrak 2.4 artikuluan aipatutako ustezkoak.

3. artikulua. — *Aplikazio-eremutik kanpo uztea*

Ordenantza honen aplikazio-eremutik kanpo honako hauek geratuko dira:

- a) Pertsona edo erakunde onuradunak alde aurretik eskatu gabe ematen diren sariak.
- b) Udalbatzako talde politikoentzat udal aurrekontuan ezarritako dirulaguntzak, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 4.d) artikuluan aipatutakoak, osoko bilkuraren erabakietan eta tokiko araubideko legedian xedatutakoaren arabera.
- c) Beste administrazio batzuei egindako diru-ekarpenak, baita beste organo eta erakunde publiko batzuei egin behar zaizkien ere, aurrekontuak udal aurrekontu orokorrean txertatuta badaude, bai orokorrean haien jarduera finantzatzeko, bai jarduketa zehatzak egiteko. Horiek udal aurrekontua gauzatzeko oinarrietan aurrez ikusitakoari jarraikiz ordainduko dira.
- d) Ohiko eta ezohiko kuoten kontzeptuan Getxoko Udalak edo haren erakunde autonomoek elkarteen alde egindako diru-ekarpenak, Tokiko Araubideari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak bosgarren xedapen gehigarrian aipatutakoak, beren interes komunak babestu eta sustatzeko. Ekarpen horiei berariazko araudia aplikatuko zaie, eta horretan aurrez ikusten ez denerako, elkarteen arloko legedia.
- e) Gauza bera aplikatuko da udala eta erakunde autonomoak atxikitzen diren elkar-teei, sareei edo intereseko beste erakunde batzuei kuoten kontzeptupean egiten zaizkien ekarpenetan, zeinak hala ulertzen duten arlo eta unitateen interes propioak sustatu eta babeste aldera egiten baitira.
Udal aurrekontuaren IV. kapituluaren kontsignatutako dira kuotak, eta izapidetutako dira baimena ebatzi, gastua xedatu eta betebeharra onetsiz, ordainketa horren bidez lortu nahi diren erabilera edo helburuak adierazita.
- f) Europar Batasuneko, Estatuko edo autonomia erkidegoetako funtsen bitartez ardatzen direnak. Horiek kasuan kasuko aplikagarriak diren berezko arauetara errepikatuko diete.

4. artikulua. — *Dirulaguntzen plan estrategikoak*

1. Getxoko Udalak eta haren erakunde autonomoek, dirulaguntzak definitu aurretik, dirulaguntzen plan estrategiko batean zehaztu beharko dituzte horiek aplikatuz lortu nahi dituzten helburu eta efektuak, horiek lortzeko behar duten epea, aurreikusten dituzten kostuak eta beraien finantzaketa-iturriak. Betiere, aurrekontu egonkortasunerako helburuak bete beharko dituzte.

2. Dirulaguntzen plan estrategikoak alkateak edo erakunde autonomoetako buruek onetsiko dituzte. Lau urteko indarraldia izango dute, arrazoitu ondoren, bestelako epea zehaztea komeni denean izan ezik.

3. Plan estrategikoek izaera programatikoa daukate eta beraien edukiak ez du eskubiderik ez betebeharririk sortzen; beraien eraginkortasuna dirulaguntza ildoak praktikan jartzearen baldintzapean geratzen da. Besteak beste, ekitaldi bakoitzeko aurrekontuan erabilgarri dagoen diruaren baldintzapean egongo dira.

**5. artikulua. — Dirulaguntzak emateko baldintzak**

Dirulaguntzak eman baino lehen ondorengo baldintza hauek bete beharko dira:

1. Organo eskudunak gastua onestea.
2. Aurrekontu-kreditu egokia eta nahikoa izatea dirulaguntza emateko betebeharr ekonomikoari erantzute aldera.
3. Emateko prozedura izapidetzea, aplikatu beharreko arauen arabera.
4. Administrazio-egintza ekonomikoen aurretik fiskalizatzea, indarreko araudiak ezartzen dituen baldintzetan.

6. artikulua. — Dirulaguntzak emateko organo eskudunak

1. Getxoko Udalean gastua baimentzeko eskumena Alkatetzak du, eskumen hori eskuordetzea gorabehera, betiere tokiko araubideari buruzko legedian xedatutako baldintzetan.

Getxoko Udaleko erakunde autonomoen kasuan, eskumena presidenteari dagokio.

2. Dirulaguntza emateko organo eskudunak, era berean, gastua baimenduko du.

7. artikulua. — Pertsona edo erakunde onuradunak

1. Oro har, dirulaguntzen pertsona edo erakunde onuraduna izango da dirulaguntzaren oinarri den jarduera egingo duena edo dagoeneko gauzatu duena ala emateko egoera legitimoan dagoena, ordenantza honen 13. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, deialdietan ezarritako berariazko baldintzen kalterik gabe.

2. Deialdiak hala aurreikusiz gero, pertsona juridikoa denean, dirulaguntzaren oinarri diren jarduera guztiak edo horien zati bat egiteko konpromisoa hartzen duten bazki-deak, lehenengoaren izenean eta haren kontura, pertsona onuradunatzat hartuko dira.

3. Pertsona edo erakunde onuradun izan daitezke pertsona fisiko edo juridikoen multzoak, publikoak edo pribatuak, ondasunen erkidegoak edo beste edozein unitate ekonomiko edo ondare bereizi, nortasun juridikorik ez izan arren, proiektuak, jarduerak edo portaerak gauza baditzaizkete edo dirulaguntza emateko egoeran badaude.

Nortasunik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen elkarteak direnean, publikoak edo pribatuak, berariaz jasoko dira idatziz, eskaeran eta emateko ebazpenean, taldekide bakoitzak onetsitako konpromisoak eta bakoitzari aplikatuko zaion dirulaguntzaren zenbatekoa. Horiek ere onuradun izango dira. Idatziz jasota uzten ez bada, ulertuko da taldeko pertsona guztiek onetsitako konpromisoei modu mankomunatuan erantzungo dietela, eta dirulaguntzaren zenbatekoari dagokion ehunekoa jasoko dutela. Nolanahi ere, elkartearen ordezkari edo ahalduen bakarra izendatu beharko da, eta ahalorde askietsiak izango ditu, onuradun bezala elkarteari dagozkion eskakizunak betetzeko. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 39. eta 65. artikuluetan aurrez ikusitako preskripzio-epea igaro arte ezingo da elkarte desegin.

8. artikulua. — Erakunde laguntzaileak

1. Erakunde laguntzailea izango da dirulaguntzarekin zerikusia duten ondore guttiararako organo emailearen izenean eta haren kontura diharduena, oinarri arauemaileen arabera, onuradunei funts publikoak eman eta banatzeko, edo jasotako funtsak eman eta banatu gabe dirulaguntza kudeatzen lankidetzan aritzen dena. Funts horiek ez dira inola ere bere ondarean sartuko.

Era berean, erakunde laguntzaileak izango dira erkidegoko araudiarekin bat onuradun izendatu arren, bakarrik aurreko paragrafoan adierazten diren eginkizunak dituztenak.

2. Erakunde laguntzailetzat jo daitezke organo eta gainerako erakunde publikoak, administrazio publikoek partaidetza osoa edo gehiena duten merkataritza sozietateak, zuzenbide publikoko organo edo erakundeak eta Tokiko Araubideari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak bosgarren xedapen gehigarrian aipatzen dituen elkarteak, baita gai-



nerako pertsona juridiko publiko edo pribatuak, betiere zehazten diren kaudimen eta eraginkortasunaren baldintzak betetzen badituzte.

3. Erakunde kolaboratzaileak badaude eta organo emailearen izenean eta haren kargura aritzen badira, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 12. eta 13. artikuluetan xedatutakoa aintzat hartuko da.

9. artikulua. — *Pertsona edo erakunde onuradun izateko baldintzak*

1. Pertsona edo erakunde onuradunak izango dira dirulaguntza ematea arrazoi-zen duen egoeran daudenak edo deialdian aurrez ikusitako inguruabarrak betetzen dituztenak.

2. Ezingo dira pertsona edo erakunde onuradunak izan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan jasotzen diren debekuetako batean daudenak.

Era berean, ezin izango dira pertsona edo erakunde onuradunak izan, sexuan oinarrituta edo emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren. 3.1 artikuluan adierazitako diskriminazio anizkoitzeko inguruabarretan oinarrituta diskriminatzen duten jarduerak egin edo egingo dituztenak; ez eta sexuan oinarrituta diskriminazioa egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapenen bat ezarrita duten pertsona fisikoak eta juridikoak ere, dagokion zehapenean ezarritako denbora-tarte osoan. Halaber, laguntza eta dirulaguntzetatik kanpo geratuko dira estatu-araudiaren arabera, berdintasun-plan bat indarrean izan behar duten arren, halakorik ez duten enpresak, ezta, estatu-legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan finkatzen duen bezala, sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko edo haien aurka egiteko neurriak ezarri dituztela egiaztatzen ez duten 50 langiletik gorako enpresak ere.

Pertsonak edo erakundeak pertsona edo erakunde onuradun izateko debekurik ez dutela justifikatzeko, ziurtagiriak dokumentazioa edo erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da. Horretan ipiniko da berariaz kontra egiten ez dela Udalak edo haren organismo autonomoek edozein administrazioak dituen datuak kontsultatu edo jasotzeko, datu-bitartekaritarako plataformen edo horretarako prestatutako beste sistema elektronikoko batzuen bidez. Arrazoi teknikoengatik elkarreragingarritasuna ezinezkoa bada, izapide-zeko dokumentuak aurkezteko eskatu ahal izango diote interesdunari.

3. Emakumeen eta gizonen berdintasuna alderdi garrantzitsua bada dirulaguntza-aren xedeari begira, pertsona fisiko edo juridiko parte-hartzaileek bete beharreko baldintzen artean eskatuko da emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako ibilbidea egiaztatzea; edo bere estatutuetako helburuen, xede sozialen edo sorrerako helburuen artean berdintasunaren sustapena izatea; edo diruz lagundutako proiektua edo jarduera gauzatuko duten pertsonak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza espezifikoa izatea.

4. Nolanahi ere, edozein dela erabilitako modua, onuradun izateko baldintzak betetzen direla azaltzen duten ziurtagiriek sei hilabeteko iraungitze-epea izango dute, ziurtagiria egiaztatu edo ematen den egunetik zenbatzen hasita.

5. Zerga-zorren, Gizarte Segurantzako zorren edo itzulketen gaineko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, diru-laguntza eman aurreko unean zein diru-laguntza ordaindu aurretik egin beharko da, bai osorik bai zati batean, eta aurreko paragrafoetan ezarritako bide berberak erabiliz. Ordainketa egin aurretik egiaztatzeko, aurreko paragrafoan ezarritako iraungitze-epea bete beharko da.

6. Lege-mailako arauen bidez emandako zuzeneko laguntzen kasuan, baita pertsona fisikoen oinarritutako beharrak estaltzeko interes sozial edo humanitarioa dela-eta, zuzenean emandakoen kasuan ere, laguntza horiek arautzeko irizpideak kontuan hartuko dira onuradun direla zehazteko.

**10. artikulua.— *Pertsona edo erakunde onuradunen eskubideak eta betebeharrak***

1. Pertsona edo erakunde onuradunek eskubidea dute ematen zaien kopurua ko-bratzeko, dagokion deialdian, hitzarmenean edo ebazpenean zehazten diren baldintze-tan eta eskakizunetan. Era berean, deialdiak debekatzen duenean izan ezik, ahalme-na dute organo emaileari eskatzeko, diruz lagundutako jarduera amaitu baino lehen, ebazpena alda dezan, finkatutako epea zabaldu, emandako zenbatekoa murriztu edo jardueran dauden ekintzak aldatu nahi badira. Horiek baimenduko dira ustekabeko inguruabarrengatik gertatu badira edo jarduketaren xede onerako beharrezkotzat eta behar bezala arrazoituztat jotzen badira, baldin eta dirulaguntzaren funtsezko helburua edo xedea aldatzen ez denean eta hirugarrenen eskubideak kaltetzen ez direnean.

2. Emateko deialdien, hitzarmenen edo ebazpenen berariazko betekizunak alde batera utzita, Getxoko Udalak edo haren erakunde autonomoek ematen dituzten dirula-guntzen onuradunentzat betebeharrak dira hurrengo hauek:

- a) Zehaztutako epean dirulaguntza ematea arrazoitzen duen helburua betetzea, proiektua egikaritzea, jarduera gauzatzea edo portaera hartzea.
- b) Organo emailearen edo, bidezkoa bada, erakunde laguntzailearen aurrean honako hauek guztiak justifikatzea: eskakizunak eta baldintzak bete direla, jarduera egin dela eta horrekin dirulaguntzaren helburuetara iritsi dela eta jasotako funtsak helburura bideratu direla. Epe barruan aurkeztuko da justifikazio-modalita-tea ordenantza honek aurrez ikusitako moduan.
- c) Dirulaguntzak inbentaria daitezkeen ondasunak erosi, eraiki, birgaitu eta hobetzeko direnean, dirulaguntzak berak adierazten duen helburu zehatzerako erabili-ko dira, bost urtez ondasuna erregistro publikoan inskriba badaiteke eta bi urtez gainerako ondasunerako.
- d) Diruz lagundutako jarduerak finantzatzen dituzten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak eskuratu izanaren berri ematea organo emaileari edo erakunde laguntzaileari. Jakinarazpen hori ezagutu bezain laster egin behar-ko da eta, nolana ere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu aurretik. Proiektu edo jarduera baterako dirulaguntza eskatzen denean, baina helburu bererako bateraezina den beste bat aurretik eman denean, inguruabar hori aipatu-ko da bigarren eskaeran.

Kasu horretan, laguntzak emateko ebazpenak, hala badagokio, honako baldin-tza hauek bete beharko ditu: onuradunak uko egitea, aldeztu aurretik lortutako di-ru-laguntzei dagokienez, eta, hala badagokio, jasotako funts publikoak itzultzea.

Dirulaguntza berria lortzen denean, onuradunak lehenengo dirulaguntza eman dion erakundeari jakinaraziko dio, eta hark dirulaguntza emateko erabakia aldatu ahal izango du, araudiak xedatutako baldintzetan. Aldatzeko erabakiak aitor de-zake emandako dirulaguntzarekiko eskubidea oso-osorik edo zati batean galtzen dela eta, ondorioz, itzuli behar dela, ordenantza honek 28. artikuluan xedatutako baldintzetan.

Ildo beretik jardungo da udal-administrazioak pertsona edo erakunde onuradu-nak uko egin gabe beste dirulaguntza bateraezin batzuk jaso dituela jakiten due-nean.

- e) Ziurtatzea ematen duen ebazpen-proposamena egin baino lehen, estatuko, fo-ruko eta tokiko ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin zerga-betebeharrak eguneratuak dituela, ordenantza honen 9. artikuluan xedatutako baldintzetan.
- f) Organo emaileak edo erakunde laguntzaileak, hala badagokio, egin beharreko egiaztatze-jarduketak burutzea, baita bestelako kontrol-organo eskudunek egin ditzaketen egiaztapen eta finantza-kontrolleko edozein ere, aurreko jarduketak egikaritzean eskatutako behar besteko informazioa emanaz.
- g) Kontabilitate-liburuak, izapidetutako erregistroak eta behar bezala ikuskatutako gainerako dokumentuak izatea, onuradunari aplikatu beharreko merkataritza-eta sektore-legediak eskatzen dituen baldintzetan, baita dirulaguntzaren arauak



- eskatutako kontabilitate-estatu eta erregistro espezifiko guztiak ere, bermatzeko egiaztapen- eta kontrol-ahalmenak modu egokian erabiltzen direla.
- h) Jasotako dirulaguntzak justifikatzeko epea amaitzen denetik lau urtez funtsak aplikatu izanaren frogagiriak gordetzea.
 - i) Diruz lagundutako programaren, jardueraren, inbertsioaren edo jarduketaren finantzaketaren izaera publikoa hedatzeko neurriak hartzea, diruz lagundutako helbururako egokiak, bai formari, bai iraupenari dagokionez, hala nola Getxoko Udalaren edo haren erakunde autonomoen irudi instituzionala edo finantzaketa publikoari buruzko legendak karteletan, oroimenezko plaketan, inprimatutako materialetan, bitarteko elektronikoetan edo ikus-entzunezkoetan, edo komunikabideetan egindako aipamenak, eta erabilitako finantzaketa-iturrien antzeko garrantzia dutenak. Ez da betebeharr hori eskatuko pertsona fisikoentzako gizar-te-laguntzak direnean.
 - j) Diruz lagundutako jardueraren xedean hizkuntzen erabilera faktore aipagarria denean, dirulaguntzak emateko deialdian, hitzarmenean edo ebazpenean eus-kara sustatzeko neurriak jaso beharko dira.
 - k) Hizkuntza eta irudi inklusiboak erabiltzea, ez sexistak, ez diskriminatzaileak, ezta horrelako rolak erreproduzitzen dituztenak ere.
 - l) Dirulaguntza aldi diruz lagundutako edo ez lagundutako jarduerarik ez egitea, edo Ordenantza honetako 9. artikulua araberaren arabera onuradun izateko baldintzen aurka egin dezakeen jarduerarik ez egitea.

II. KAPITULUA

EMATEKO PROZEDURAK

11. artikulua. — *Emateko prozedurak*

1. Getxoko Udalak eta haren erakunde autonomoek norgehiagokaren araubide orokorrean eta zuzenean emango dituzte dirulaguntzak, Dirulaguntzei buruzko azaroren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 22. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2. Konkurrentziaren araubide orokorrean emandako dirulaguntzak izapidetuko dira Alkatetzak, edo berak eskuordetzen duen organoak eta erakunde autonomoaren kasuan presidenteak, onetsitako deialdiaren bitartez.

Ordenantza honek Getxoko Udalak eta haren erakunde autonomoek konkurrentziaren araubide orokorrean deialdiaren bidez emandako dirulaguntzen oinarri orokorrak ditu, eta modu ordezkatzazilean aplikatuko dira dirulaguntzak emateko oinarri bereziak edo espezifikoak dituzten ordenantzetan sartuta badaude.

3. Zuzeneko dirulaguntzak tipologiaren arabera antolatuko dira honako hauek erabiliz:

- a) Hitzarmenaren bitartez Getxoko Udaleko edo haren erakunde autonomoetako aurrekontu orokorretan ageri diren dirulaguntza izendunak.
- b) Emateko eta zenbatekoa zehazteko lege-mailako araua duten dirulaguntzak, horiek Getxoko Udalean eta haren erakunde autonomoetan aplikatzeko arau berezia izango dute.
- c) Salbuespen moduan, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak edo behar bezala justifikatutako bestelakoak ziurtatzen dituzten dirulaguntzek deialdi publikoa zailtzen badute, horiek baldintza eta konpromiso aplikagarriak zehazteko ebazpenaren bidez emango dira.

Kasu orotan, hitzarmenak, araudi bereziaren bidez emandako dirulaguntzen berariazko oinarriak eta emateko ebazpenak Alkatetzak edo berak eskuordetzen duen organoak onetsiko ditu. Erakunde autonomoetan, berriz, presidenteak egingo du.

Zuzeneko dirulaguntzei ere berariazko araudiaz gain, ordenantza hau aplikatuko zaie.



4. Dirulaguntzen deialdi publikoa onartzeko edo dirulaguntza zuzenean emateko proposamen orok memoria bat izan beharko du, Dirulaguntzen Plan Estrategikoari eta haren oinarri juridikoei dagokienez komenigarria dela justifikatzeko, eta adieraziko du nola laguntzen duen helburuak lortzen; bestela, arrazoitu egin beharko da zergatik den beharrezkoa dirulaguntza berria ezartzea, baita planean aurreikusi ez bada ere, eta nola eragiten dion hura betetzeari.

Era berean, proposamenak berdintasuna sustatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko desberdineriak ezabatzeko neurriak sartu behar dituzte balorazio-irizpideetan eta pertsona fisiko edo juridiko onuradunen betebeharretan, salbu eta txosten arrazoituaren bidez justifikatzen bada, dirulaguntzak generoan oinarritutako desberdinkeriarik ez dagoen esparru batean eragiten duela edo, desberdineriak egonda ere, dirulaguntzak ez duela eraginik emakumeen eta gizonen egoeran. Txostena helaraziko zaio dagokion erakundearen emakume eta gizonen berdintasunaren arloko eskumenak dituen organo edo organismoari, haren iritzia eskatzeko.

1. ATALA

KONKURRENTZIA BIDEZKO ARAUBIDEAN EMATEA

12. artikulua.—Emateko prozedura eta prozedura hastea

1. Dirulaguntzak publizitate-, gardentasun-, objektibotasun-, berdintasun- eta diskriminaziorik ezaren printzipioen arabera emango dira, dagokion deialdiaren bitartez. Eskaerak aurkezteko epeari dagokionez, ireki ahal izango da norgehiagoka-prozedura arrunta aplikatuz. Eta deialdian bertan finkatutako mugarekin eta deialdian jasotako irizpideen arabera, balorazio handiena lortu duten eskaerei emango zaie.

2. Salbuespenez, deialdian aurrez ikusi izan balitz, dirulaguntzara bideratutako guztizko zenbatekoa pertsona eta erakunde onuradunen artean hainbanatuko da. Xede horretarako, aurretiaz zehaztutako parametroak eta balorazio-irizpideak erabiliko dira. Halaber, deialdiak baimen dezake aurretik zehaztutako zenbatekoaren arabera pertsona edo erakunde bati banatzea, eskatutako baldintzak betetzen dituztela ziurtatzen badute, eta aukera zuzkidura bukatzen ez den bitartean irekita egotea.

3. Emateko prozedura ofizioz hasiko da organo eskudunak onetsi eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratutako deialdi publikoaren bitartez. Azkenekoak horren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialera bidaliko du, eta udaleko webgunean azalduko da.

13. artikulua.—Deialdien edukia

1. Oinarri hauetan aurrez ikusten diren bestelako alderdiak zehaztea gorabehera, deialdian gutxienez hurrengo hauek agertuko dira:

- a) Ordenantza honek dituen oinarri arauemaileen aipamena, zein Bizkaiko Aldizkari Ofizialetan dauden argitaratuta, eta, bidezkoa bada, deialdiarekin batera onesten diren berriazko oinarrien aipamena, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 23.2.a artikuluan xedatutakoa aplikatzeko.
- b) Deialdiko dirulaguntzak zer aurrekontu-kredituri egozten zaizkion eta kreditu eskuragarriaren barruan gehieneko guztizko zenbatekoa edo, hori izan ezean, dirulaguntzen zenbateko zenbatetsia.

Salbuespenez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamenduak 58.2 artikuluan xedatutako arauen arabera, deialdiak, kreditu eskuragarriaren barruan gehieneko guztizko zenbatekoaz gain, zenbateko osagarria finka dezake, dirulaguntzak emateko orduan beste deialdi bat ez egiteko.

- c) Dirulaguntzen xedea, baldintzak eta helburua, diruz lagun daitezkeen jarduerak, portaerak edo proiektuak barne. Genero-ikuspegia duten betekizunak adieraziko dira, baldin eta emakumeen eta gizonen berdintasuna alderdi garrantzitsua bada dirulaguntzaren xedea kontuan hartuta. Hala ez bada, modu argi eta objektiboan justifikatu beharko da.
- d) Norghegiagokaren araubidean edo hainbanatuta emango diren zehaztea.



- e) Dirulaguntza eskatzeko baldintzak eta ziurtatzeko modua arautzea.
Deialdiak pertsona edo erakunde onuradun izatea 7.2 artikuluan aurrez ikusitako ustezkoei zabaltzea ahalbidetzen badu, besteak beste, honako hauek adieraziko dira: eskaeran eta emateko ebazpenean nortasuna ziurtatzeko modua, kideen konpromisoak, pertsona edo erakunde onuradun bakoitzari esleitutako zenbatekoa, ordezkaria edo ahalduna izendatzea eta haren eskakizunak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak aurrez ikusten duen preskripzio-epea amaitu arte taldea desegiteko aukerarik eza eta dirulaguntzaren jomuga egokia bermatzeko beharrezkotzat jotzen diren alderdiak.
- f) Prozedura izapidetu eta ebazteko organo eskudunak. Emateko prozeduraren faseetan eskumen orokorra duten organoak zehaztuko dira, eta, bidezkoa bada, bestelako eskumen berezi batzuk definitu ere bai.
- g) Eskaerak aurkezteko eredia, modua eta epea, baita organo hartzailea ere. Eskaerei Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 23.3 artikuluan aurrez ikusitakoa aplikatuko zaie.
- h) Prozedura ebatzi eta jakinarazteko gehieneko epea, eta epearen barruan ebazpenik izan ezean, ezesten dela zehaztea.
- i) Eskaerarekin batera aurkeztu behar diren dokumentuak eta informazioak.
- j) Hala badagokio, eskaerak birformulatzeko aukera Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17 artikuluan aurrez ikusitakoarekin bat etorritik.
- k) Dirulaguntzak ematea edo ezestea erabakitzen duen ebazpenak administrazio-bidea amaitzen duela adieraztea eta bidezkoak diren errekurtsoak, baita non aurrean jarri behar diren ere azaltzea.
- l) 2. atalean zehaztutakoen artetik dirulaguntza emateko irizpide objektiboak eta, bidezkoa bada, horien haztapena.
Irizpide bat baino gehiago kontuan hartzen denean, bakoitzak duen haztapen erlatiboa zehaztu beharko da.
Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarak Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.3 b artikuluan xedatutakoaren arabera, eskatzaileek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan egindako ekintzak eta politikak eta/edo dirulaguntza jasotzeko aurkezten den proiektuan genero-ikuspegia txertatzearekin lotutako beste alderdi batzuk baliotsi behar dira, balorazio-irizpideen baremo osoaren %5ekin gutxienez. Hori guztia, non eta ez den objektiboki justifikatzen ehuneko hori neurritz kanpokoa dela dirulaguntzak emakumeen eta gizonen egoeran duen eraginari dagokionez.
- m) Jakinarazi edo argitaratzeko bitartekoak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluaekin bat etorritik.
- n) Pertsona edo erakunde onuradunak onesten dituen betebeharrak, bai orokorrak, bai espezifikoak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 14. artikuluan xedatutakoaren esparruan. Dena den, horretan aurrez ikusten ez diren betebeharrak bereziak ezarri ahalko dira.
- o) Berezi adieraziko dira hedapen-neurriak pertsona edo erakunde onuradunak jarduera edo proiektua finantzaketa publikoarekin egiten duela iragartzeko. Bete behar diren dokumentuak euskarrietan Getxoko Udalaren edo erakunde emailearen logotipo ofiziala eta bi hizkuntza ofizialak (euskara eta gaztelania), deialdian zehazten diren ezaugarri teknikoak eta aipamen berezia baliatuta.
- p) Jarduera eta diruz lagundutako diru-sarrerak eta gastuak justifikatzeko modua eta epea, justifikazio-eskakizunak betetzeko beharrezkoak diren dokumentuekin batera.
- q) Bermea ordaintzea eta haren araubidea.



- r) Dirulaguntzak elkartu eta bateragarri izatea.
- s) Udalerriaz kanpo udalerraren agerikotasun-maila.
- 2. Dirulaguntzen deialdi bakoitzean haztatzeko irizpide espezifikoak eta osagarriak sartzea gorabehera, Getxoko Udalak eta erakunde autonomoek dirulaguntzak emateko irizpide orokortzat har daitezke, besteak beste, honako hauek, eta deialdi bakoitzean garatu beharko dira:
 - a) Eskatzailearen gaitasun ekonomikoa.
 - b) Proiektuaren bideragarritasuna.
 - c) Koherentzia ekintzaren justifikazioaren, adierazitako helburuen eta proposatutako jardueren artean.
 - d) Jarduera edo proiektuaren sormena, egite-maila, berrikuntza, orijinaltasuna edo interesa.
 - e) Proiektuan generoaren ikuspegia sartzea.
 - f) Jarduera edo proiektuaren ondorioz ondoreen iraunkortasun-maila.
 - g) Beste erakunde batzuekin koordinazio- eta lankidetzeta-maila.
 - h) Esperientzia antzeko proiektuetan.
 - i) Sexuaren arabera bereizitako informazioa, bai eta guztizkoarekiko ehunekoa ere, bai erakundea osatzen duten kideen kopuruari dagokionez, bai erakundeak egindako jardueretan izena eman duten parte-hartzaileei dagokienez, jarduera horien berri izateko inpaktu soziala.
 - j) Pertsona edo erakunde eskatzailearen gaitasun teknikoa eta antolaketa- nahiz kudeaketa-ahalmena.
 - k) Proiektua egokitzea gizarte eta kultur baldintzetara nahiz garatuko den eremuko bestelakoetara.
 - l) Kalitate teknikoa.
 - m) Kalitate artistikoa.
 - n) Pertsona edo erakunde eskatzaileek finantzatzeko duten gaitasuna eta beste finantzaketa-funts batzuk eskuratzeko duten ahalmena.
 - o) Programatutako proiektua edo jarduerak jarraitu eta ebaluatzeko sistema.
 - p) Jendea sentsibilizatzeko orduan egindako ekarpena.
 - q) Getxoko herritarrek jardueretik duten irisgarritasun-maila.
 - r) Proiektua edo jarduera garatzean boluntarioen partaidetza-ehunekoa.
 - s) Hartzaileen bizi-kalitatea hobetzeko hezkuntza edo prestakuntzaren alderdiak sustatzea.
 - t) Diruz lagundutako ekintzan hartzaileen partaidetza aktiboa.
 - u) Proiektuaren osotasunean getxotarren partaidetza-maila.
 - v) Proiektuan euskararen presentzia eta erabilera-maila.

14. artikulua. — *Dirulaguntzaren zenbatekoa edo hura zehazteko irizpideak*

1. Dirulaguntzaren xedea kontuan hartuta, deialdiek dirulaguntzaren banako zenbatekoa izango dute.

2. Zehaztea ezinezkoa denean, deialdiak zehazteko irizpide objektiboak eta, bidezkoa bada, haztapena definituko ditu. Irizpideak dirulaguntzaren helburuarekiko egokiak izango dira.

3. Dirulaguntzaren araudiak norberaren finantzaketa-zenbatekoa eska dezake diruz lagundutako jarduera estaltzeko. Halakoetan, diruz lagundutako proiektuari edo ekintzari funts propioen ekarpena ziurtatuko da Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 30. artikuluan aurrez ikusitako baldintzetan.

Aurkeztutako jardueraren aurrekontua edo ondorengo aldatetako erreferentziatzen hartuko dira dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko, eta kalkulatzeko aldera, jardueraren



azken kostuaren ehunekoa erabiliko da. Kasu honetan, finantzaketa publikoaren balizko gehiegizkoa kalkulatu da kostu guztiarekiko ekarpenak izan behar duen proportzioa erreferentzia gisa hartuta, dirulaguntzaren araudiarekin eta deialdiaren baldintzekin bat etorritz. Kasu hauetan, zenbatekoa proportzioz itzuli beharko da, azkenean jardueraren benetako kostua aurrekontuan zegoena baino txikiagoa denean.

4. Era berean, deialdian aurrez ikus daiteke emandako dirulaguntzaren zenbatekoa zenbateko jakina izatea, guztizko kostuaren ehunekoa edo zatia aipatu gabe. Halakoe-tan, pertsona edo erakunde onuradunaren kontura izango da diruz lagundutako jarduera oso-osorik gauzatzeko finantzaketaren aldea, eta finantzaketa publikoa itzuli beharko da bakarrik jardueraren kostu guztia gainditzen duen zenbatekoan.

15. artikulua.— *Eskaerak aurkezteko modua eta epea*

1. Deialdia argitaratu ondoren, dirulaguntza eskatu nahi duten pertsona edo entitate interesdunek administrazio-prozedura erkideari aplikatu beharreko araudian zehaztutako moduan eta lekuetan aurkeztu beharko dute eskaera.

2. Eskaerak aurkezteko epea deialdian zehaztuko da.

3. Eskabideak deialdian eskatutako betekizunak betetzen ez baditu, organo eskudunak pertsona edo erakunde interesdunari eskatuko dio eskabidea zuzentzeko gehie-nez hamar eguneko epe luzaezinean; halaber, ohartaraziko dio horrela egiten ez badu, eskaera bertan behera utzitzat joko dela. Horretarako, aurretiaz ebazpena emango da Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritako baldintzetan.

4. Deialdiak zehaztu dezake pertsona edo erakunde eskatzaile bakoitzak aurkeztu beharreko gehieneko jarduera edo proiektu kopurua.

16. artikulua.— *Eskaerak birformulatzea*

1. Deialdiek zehaztu ditzakete aurkeztutako eskaerak birformulatzeko egokitasuna eta mugak, dirulaguntzaren-ildoan aurkeztutako programa guztiak baloratu ondoren, pertsona edo erakunde bati eman beharreko zenbateko ekonomikoa eskatutakoarekin bat ez datorrenean.

2. Birformulatzeko dirulaguntzen kide anitzeko organoak ados egon beharko du, eta dirulaguntzaren helburua, baldintzak eta xedea errespetatuko dira, mantentzen diren jarduketek eta konpromisoek proiektua desnaturalizatu gabe. Gainera, kasu bakoitzean deialdiak xedatutako finantzaketaren ehunekoa mantenduko da.

17. artikulua.— *Izapidea*

1. Dirulaguntzak konkurrentzia-araubidean emateko prozedurak izapidetzen dituzten unitateek proposatuko dituzte deialdiak.

2. Unitate izapidegileak ofizioz egingo ditu beharrezkotzat jotzen dituen jarduketak eta jarduerak, ebazpen-proposamena formulatu baino lehen datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko. Era berean, ebazteko beharrezkotzat jotzen dituen txostenak edo dirulaguntzaren arauak xedatzen dituztenak eskatuko ditu.

3. Instrukzio-izapideek halabeharrez honako hauek beteko dira:

a) Eskaerak ebaluatzea, ordenantzan eta deialdian zehaztutako balorazioaren irizpide, modu eta lehentasunen arabera eginda. Horiek aurreebaluazioaren fasea aurreikus dezakete, egiaztatzeko dirulaguntzaren onuradun izate aldera ezarritako baldintzak betetzen direla.

b) Unitate izapidegilearen txostena, adierazteko, eskura duen informazioaren arabera, pertsona edo erakunde onuradunek lortzeko eskakizun guztiak betetzen dituztela.

4. Eskaerak ebaluatu eta txostena eman ondoren, unitate izapidegileak dirulaguntzak emateko proposamena egingo du, dirulaguntzen kide anitzeko organoak bere txostena eman dezan.



5. Dirulaguntzen kide anitzeko organoa osatuko dute presidenteak, idazkariak eta gutxienez hiru kidek. Horien barruan egongo dira dirulaguntzaren xedean teknikari adituak.

Alkatetzak erabakiko ditu dirulaguntzen kide anitzeko organoen osaera, izendatzeko irizpideak eta funtzionamendu-arauak.

Ordenantza honek eta garapen-xedapenek berariaz aurrez ikusten ez dutenerako, dirulaguntzen kide anitzeko organoaren funtzionamendua arautuko da Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen aurretiazko titularen barruan II. kapituluko hirugarren atalean aurrez ikusitakoaren arabera.

6. Dirulaguntzen kide anitzeko organoak, aurkeztutako proposamena ikusirik, txostena egingo du, eta unitate izapidegilearen bidetik helaraziko zaio ebazteko organo eskudunari, onar dezan.

7. Prozeduran interesdunak aipatu ez dituen gertakariak, alegazioak edo frogak egonda, kontuan hartzen badira, emate-proposamena jakinaraziko zaie, eta 10 eguneko epea emango zaie alegazioak aurkezteko.

Interesdunak aipatu ez dituen gertakari, alegazio edo frogatzat ez dira hartuko onuradun izateko eskakizunak betetzeari buruzko egiaztapen telematikoak, Getxoko Udalak berak eta haren erakunde autonomoek egindakoak.

Unitate izapidegileak alegazioen gaineko txostena emandakoan, proposamena berriaz gauzatu da dirulaguntzen kide anitzeko organoak txostena egiteko eta organo eskudunak onesteko.

8. Ebazpen-proposamenak oso-osorik edo zati batean ordaintzeko proposamena duenean, dirulaguntzaren jarraipena egiteaz arduratzen den unitate izapidegileak bete beharko du ordenantza honek 26. artikuluan aurrez ikusitakoa.

18. artikulua. — Ebazpena

1. Organo eskudunak, Alkatetzak edo berak eskuordetutako organoak, edo erakunde autonomoko buruak emandako ebazpena arrazoitu beharko da deialdiak xedatutakoarekin bat; eta izan beharko ditu dirulaguntza jasoko duten eskatzailearen edo eskatzaileen zerrenda nahiz zenbatekoa, aplikatutako balorazio-irizpideen arabera ebaluazioa zehaztuz. Era berean, berariaz jasoko da, hala badagokio, gainerako eskabideak ezetsi egin direla, eta ez direla eman atzera egiteagatik, eskubideari uko egiteagatik edo gerora sortutako ezintasun materialagatik.

2. Onuradunen batek dirulaguntzari uko egiten badio, organo emaileak adostuko du, unitate izapidegilearen bitartez kide anitzeko organoak proposamena egin ondoren, deialdi berririk gabe, dirulaguntza ematea puntuazioaren ordenan hurrengo eskatzaileari edo eskatzaileei, baldin eta uko egitearekin gutxienez ezetsitako eskaera bati erantzuteko kreditu nahikoa askatu denean.

3. Emateko ebazpenak administrazio-bidea amaituko du, urriaren 1eko 39/2015 Legeak xedatutakoarekin bat etorriz, dagozkion administrazio-errekurtsoak jartzeko.

4. Ebazpena ebatzi eta jakinarazteko gehieneko epea deialdian aurrez ikusiko da, baina ezin izango ditu 6 hilabete gainditu, lege-maila duen arau batek edo Europar Batasuneko araudiak epe luzeagoa zehazten duenean izan ezik. Epea deialdia argitaratzen den unetik hasiko da zenbatzen, horrek ondorioak ondorengo datara geroratzen ditue-nean salbu.

5. Ebazpena eskatzaileei jakinaraziko zaie, eta onuradunek onartzen dutela ulertuko da, hartzen denetik hamar egun igarota, interesdunak bestelakoa adierazten ez badu.

6. Gainera, ebazpena Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko da, eta beste baliabide batzuk erabiliko dira onuradunen publikotasuna ziurtatzeko, hala nola goitza elektronikoa eta Udalaren webgunea.

Ez da beharrezkoa izango onuradunen datuak argitaratzea, baldin eta dirulaguntzaren xedeari lotuta, pertsona fisikoen norberaren edo familiaren intimitatearen edo ohorea zaindu eta errespetatzaren aurkakoa bada, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren In-



timitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan ezarritakoa dela bide; eta araudi arautzailean aurreikusi bada.

7. Dirulaguntza emateko eskaera administrazioaren isiltasunagatik ezetsizat hartzeko legezko ebazpenik interesdunei jakinarazi gabe gehieneko epemuga.

2. ATALA

ZUZENEAN EMATEA

19. artikulua.— *Zuzenean emateko modalitateak*

1. Getxoko Udaleko edo haren erakunde autonomoetako aurrekontu orokorrean aurrez ikusitako dirulaguntza izendunak dira aurrekontuaren gastu- orrian berariaz xedea, aurrekontu-zuzkidura eta onuraduna aipatuta dituztenak.

Hitzarmena izango da dirulaguntza horiek bideratzeko ohiko tresna. Emateko prozedura ofizioz dirulaguntza egozten zaion aurrekontu-kredituaren arduradunak hasiko du edo, bestela, interesdunak eskatuta, eta emateko ebazpenarekin eta hitzarmena sinatzearekin amaituko da.

Hitzarmenak gutxienez honako hauek izango ditu:

- Dirulaguntzaren xedea eta onuradunak, aurrekontu esleipenaren arabera.
- Dirulaguntzaren gastua eta zenbatekoa egozten zaion aurrekontu-kreditua, banakatua, hala badagokio, onuradun bakoitzarentzat, bat baino gehiago badira.
- Xede bera duten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin bateragarritasuna edo bateraezintasuna, edozein administrazio edo erakunde publikok edo pribatuk, estatukoak, Europar Batasunekoak eta nazioarteko erakundeek emandakoak.
- Dirulaguntzaren epeak eta ordaintzeko moduak, ordaintzeta aurreratuak eta kontura egindako ordaintzetak gauzatzeko aukera, baita onuradunek aurkeztu beharreko bermeen araubidea ere.
- Epea eta modua onuradunak justifikatzeko dirulaguntza ematen den xedea bete izana eta jasotako funtsak aplikatu izana.

2. Zuzenean ematen diren dirulaguntzak, lege-mailako arauak xedatzen dituenak, Getxoko Udalean eta haren erakunde autonomoetan berariaz aplikatzeko arauak eta gainerakoek arautuko dituzte.

3. Salbuespenez, zuzenean dirulaguntzak eman ahal izango dira, interes publikoko arrazoiak, arrazoi sozialak, ekonomikoak edo humanitarioak direla medio, edo behar bezala justifikatutako beste arrazoi batzuk direla medio, deialdi publikoa egitea oztopatzen badute.

Espedienteak, nolnahi ere, dirulaguntzak kudeatzen dituen organoaren memoria bat jasoko du. Organo hori gaiaren arabera eskuduna da, eta dirulaguntzen izaera berezia, interes publikoa, soziala, ekonomikoa edo humanitarioa egiaztatzen duten arrazoiak edo deialdi publikoaren zailtasuna justifikatzen duten beste arrazoi batzuk justifikatuko ditu.

Emateko ebazpenak salbuespenez onetsiko ditu emandako zuzeneko dirulaguntzen arauak, eta gutxienez honako alderdi hauek azalduko dira:

- Dirulaguntzaren xedea, bere izaera berezia eta interes publikoa, soziala, ekonomikoa edo humanitarioa ziurtatzen dituen arrazoiak edo, behar bezala justifikatuta, deialdi publikoa egitea oztopatzen duten beste arrazoi batzuk.
- Lege araubide aplikagarria.
- Onuradunak eta laguntzaren modalitateak.
- Emateko prozedura, ordaintzeta eta onuradunek eta, hala badagokio, erakunde laguntzaileek dirulaguntza nola erabili duten justifikatzeko araubidea.



4. Getxoko Udalak emandako gizarte-laguntzak, arlo eskudunak izapidetutakoak, adjudikatzeko orduan, aurretik emate-irizpideak eta onuradunen eskakizunak onetsi beharko dira.

5. Ebazpenean zehatz-mehatz identifikatuko dira onuradunek onartutako konpromisoak, eta dirulaguntzaren zenbatekoa nahiz hori jasotzea onuradunak proposatutako jarduera egitearen mendekoa denean, argi eta garbi definituko da proposamen hori edo dokumentutan formulatu zen.

6. Ebazpena Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko da, eta beste baliabide batzuk erabiliko dira onuradunen publikotasuna ziurtatzeko, hala nola egoitza elektronikoa eta Udalaren webgunea.

III. KAPITULUA

KUDEAKETAKO XEDAPEN KOMUNAK

20. artikulua.— Azpikontratazioa

1. Diruz lagundutako jarduera egitea pertsona edo erakunde onuradunaren bete-behar besterenezina da. Salbuespenak ordenantza honek xedatutakoak baino ez dira, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 29. artikuluan eta Erregelamenduak 68. artikuluan finkatutako muga eta baldintzekin.

2. Dirulaguntzen deialdian, hitzarmenean edo ebazpenean ezarri ahal izango da pertsona edo erakunde onuradunak diruz lagundutako jarduera gauzatzeko hirugarrenekin azpikontratatu ahal izatea, baita haren muga ere. Aurreikuspen hori agertzen ez bada, diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren ehuneko 50 gehienez ere azpikontratatu ahal izango da.

3. Inola ere ezingo dira azpikontratatu diruz lagundutako jardueraren kostua handituz jardueraren edukia balio erantsia ematen ez dioten jarduerak.

4. Halaber, onuradunek ezingo dute hurrengo hauekin hitzartu diruz lagundutako jarduerak gauzatzea:

- a) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrek 13. artikuluan xedatu diren debekuren batean dauden pertsona edo erakundeak.
- b) Kontratazioaren xede den jarduera egiteko beste dirulaguntza batzuk jaso dituzten pertsona edo erakundeak.
- c) Bitartekari edo aholkulariak, ordainketak eragiketaren kostu guztiaren ehuneko bat direnean, ordainketa hori egindako lanaren edo emandako zerbitzuaren merkaturako balioarekiko justifikatzen denean izan ezik.
- d) Dirulaguntzei buruzko abenduaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamenduak 68.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, onuradunari lotutako pertsona edo erakundeak. Salbuespena izango da aurretiaz organo emailearen baimena lortzea eta lotutako erakundearen kostuak diruz lagun daitekeen zenbatekoa ez gainditzea.

Horretarako, onuradunak baimena idatziz eskatuko du kontratua egin aurretik, eta kontratua egin arte ezin izango da egin. Hilabeteko epean horri buruzko ebazpenik ematen ez bada, interesdunek eskaera ezetsizat jo ahal izango dute administrazioaren isiltasuna dela bide. Onuradunarekin lotutako pertsona edo erakundeekin azpikontratatzeko jarduerak ez dira diruz laguntzeko moduko gastuzat hartuko, baldin eta ez badute nahitaezko baimenik.

- e) Deialdi eta programa berean dirulaguntzaren edo laguntzaren pertsona edo erakunde eskatzaileekin, eskakizunak ez betetzeagatik edo balorazio nahikora ez iristegatik dirulaguntza lortu ez badute.

5. Nolanahi ere, ezinbestekoa izango da aurretiazko baimena lortu eta idatziz kontratua egitea, azpikontratazioak dirulaguntzaren zenbatekoaren % 20 gainditzen denean eta zenbatekoa 60.000 eurotik gorakoa denean.



Nahitaezko baimenik gabe hirugarrenekin aurreko mugak gaindituta jarduerak egiten badira, ez dira diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko.

Xede horrez, zenbatekoa murrizteko eta atal honetan eskatzen diren eskakizunak saihesteko ezingo da kontratu bat zatikatu.

6. Kontratistak soilik onuradunaren mende egongo dira, eta berak izango du administrazioaren aurrean diruz lagundutako jarduera egikaritzean erantzukizun osoa, Dirulaguntzei buruzko abenduaren 17ko 38/2003 Legeak 29.6 artikuluan xedatutako baldintzetan.

Aurreko atalean aurrez ikusten denerako, onuradunak arduratuko dira hirugarrenekin hitzartutako jarduera egikaritzean dirulaguntzari buruzko araudian zehazten diren mugak errespetatzeaz, diruz lagun daitezkeen gastuen izaerari eta zenbatekoari dagokionez. Gainera, kontratistak

Dirulaguntzei buruzko abenduaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 46. artikuluan aurrez ikusitako lankidetzabetekizunaren mende geldituko dira mugak bete direla behar bezala egiaztatzeko.

21. artikulua.— Diruz lagun daitezkeen gastuak

1. Diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko dira zalantzarik gabe diruz lagundutako jardueraren izaerari erantzuten dizkietenak, zorrozki beharrezkoak direnak eta dirulaguntzak emateko deialdi, hitzarmen edo ebazpenek xedatutako epean egiten direnak.

Diruz lagun daitezkeen gastuak erosteko kostuak ez du inola ere merkatuko balioa gaindituko. Diruz lagun daitezkeen gastuei Dirulaguntzei buruzko abenduaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 31. artikuluan aurrez ikusitakoa aplikatuko zaie.

2. Deialdi, hitzarmen edo ebazpen arautzaileetan berariaz kontrakorik xedatu ezean, egindako gastua da justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutakoa.

3. Diruz lagundutako gastuaren zenbatekoak kontratu txikietarako kontratuen legedian xedatutako zenbatekoak gainditzen dituzenean, onuradunak gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko dizkie beste hainbat hornitzaileari, obra egiteko, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu baino lehen, bere ezaugarri bereziengatik emateko edo hornitzeko merkatuan nahikoa erakunde ez dagoenean ala gastua dirulaguntza eman baino lehen egin denean izan ezik.

Aurkeztutako eskaintzen arteko aukeraketa, justifikazioan edo, hala badagokio, dirulaguntzaren eskaeran eman beharko direnak, eraginkortasuneko irizpide eta irizpide ekonomikoen arabera egingo da; hala, hautaketa berariaz memoria batean justifikatu beharko da proposamen ekonomiko onuragarriena aukeratzeko ez denean.

4. Finantza-gastuek, lege- edo finantza-aholkularitzaren gastuek, notario eta erregistroko gastuek, diruz lagundutako proiektua egiteko adituen gastuek eta administrazioaren berariazkoek dirulaguntza jaso ahalko dute, diruz lagundutako jarduerarekin zuzeneko harremana badute eta hori behar bezala prestatu eta egikaritzeko ezinbestekoak badira.

5. Hala ere, ez dira inola ere diruz lagun daitezkeen gastutzat joko honako hauek:

- a) Banku-kontuetako interes zordunak.
- b) Interes, gainordain eta zehapenak, administratiboak eta penalak.
- c) Lege-prozeduren gastuak.

6. Diruz lagun daitezke zeharkako gastuak eta langileen gastuak, deialdian, emateko ebazpenean edo hitzarmenean zehazten diren gehieneko ehunekoan. Gehieneko ehunekorik zehazten ez bada, % 50 izango da.

Zeharkako kostuak onuradunak diruz lagundutako jarduerari orokorrean onetsitako kontabilitatearen printzipio eta araupean egotziko dizkio, eta, nolana ere, kostu horiek jarduera egiaz egiteko aldiari erantzuten dizkieten neurrian.

7. Diruz lagun daitezkeen gastua da inbentaria daitezkeen ondasunak amortizatzea, bakarrik deialdiak, hitzarmenak edo ebazpenak berariaz hala aurrez ikusten badu.



8. Tributuak diruz lagun daitezkeen gastuak dira, onuradunak benetan ordaintzen dituenen.

Ez dira inola ere diruz lagun daitezkeen gastuak zeharkako zergak, berreskura edo konpentsa daitezkeenean, ezta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere.

22. artikulua.— Justifikatzeko modua

1. Pertsona edo erakunde onuraduna behartuta dago dirulaguntza emateko egin-tzan ezarritako baldintzak bete eta helburuak lortu izanaren justifikazioa aurkeztera. Deialdiek, hitzarmenek edo ebazpenek zehaztuko dituzte dirulaguntza justifikatzeko unea eta modalitatea (justifikazio-kontua, moduluen arabera ziurtatzea edo kontabilitate-orriak aurkeztea). Halaber, hala badagokio, definituko dituzte behar diren kontabilitate-liburuak eta -erregistroak dirulaguntzak behar bezala justifikatzeko eta egiaztapen-eta kontrol-gaitasunak erabiltzeko.

2. Orokorrean, justifikazioak justifikazio-kontuaren itxura hartuko du.

Kontuak hurrengo dokumentu hauek izango ditu:

a) Jarduketa-memoria, dirulaguntzaren emakidan ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzen duena, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adieraziz.

Emakumeen eta gizonen egoeran duten eragina ezagutzeko, justifikazio-memorian sexuaren arabera banakatutako informazioa eman beharko da emandako zerbitzuaren onuradunei edo azken erabiltzaileei buruz, erakundearen titularrei eta plantillari buruz, bai eta, hala badagokio, dirulaguntzaren xede den zerbitzua emateko kontratatu den erakundearen plantillari buruz ere.

b) Memoria ekonomikoa, egindako jardueren kostua justifikatzeko. Honako hau jasoko da bertan:

Kasu guztietan:

— Jardueraren gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatua, honako hauek identifikatuta: hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa, egite-data, eta, hala badagokio, ordainketaren data. Dirulaguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, izandako desbideratzeak adieraziko dira.

— Froga-balioa duten fakturak edo dokumentuak, merkataritza-trafiko juridikoan balio bera dutenak edo administrazioan eraginkortasuna dutenak, aurreko paragrafoan aipatzen den zerrendan jasota eta, hala badagokio, ordainketa egiaztatzen duten agiriak.

— Bidezkoa bada, a) atalean aipatzen den zerrendan jasota dauden kostu orokorrak eta/edo zeharkakoak banatzeko irizpideak adieraztea, dirulaguntzaren oinarri arauemaileek, justifikatu gabe, oroharreko konpentsazioa aurrez ikusi dutenean izan ezik.

— Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen zerrenda xehatua, eta haien zenbatekoa nahiz jatorria adieraziko dira.

Dagokionean:

— Tasatzaile independentearen ziurtagiria, behar bezala ziurtatuta eta inskribatuta erregistro ofizialean, ondasun higiezinak erosi badira.

— Onuradunak eskatu behar izan dituen hiru aurrekontuak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31.3 artikulua aplikatuz.

— Hala badagokio, itzulketaren ordainketa-gutuna, aplikatu gabeko geldikinak eta horietatik ondorioztatutako interesak egotekotan.

Gastuak justifikatu beharko dira fakturen bidez eta merkataritzaren trafiko juridikoan froga-balioa edo administrazio-eragina duten gainerako dokumentuen bidez.

Hala badagokio, egindako ordainketak justifikatzen dituen dokumentazioa aurkezteko eska daiteke.



3. Dirulaguntzak emateko deialdiek, hitzarmenek edo ebazpenek justifikazio-modalitate gisa aurreikus dezakete justifikazio-kontua eta kontuei buruzko auditoria-txostena, Kontuen Auditoria eta Kontabilitate Institutuaren mendeko Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean jardule bezala inskribatutakoa. Justifikazio-kontuak, auditoria-txostenarekin batera, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamenduak 72.1 artikuluan aipatutako jarduketa-memoriaz gain, memoria ekonomiko laburtua izango du, diruz lagundutako jarduerak egiteko izandako gastuen orri adierazgarria barne.

Gastuak behar bezala multzokatu dira, eta, bidezkoa bada, hasieran aurrekontuan zeuden zenbatekoak eta izandako desbideratzeak adieraziko dira.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamenduak 74.3 artikuluan xedatutako ustezkoan, auditorea pertsona edo erakunde onuradunak izendatuko du. Kontuak ikuskatzearen ondoriozko gastua diruz lagun daitekeen gastutzat hartuko da, baina gehienez laguntzaren zenbatekoaren % 10 izango da.

Auditoreak maiatzaren 17ko EHA/1434/2007 Aginduan ezarritakoa bete beharko du. Agindu horren bidez, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamenduaren 74. artikuluan aurreikusitako Estatuko sektore publikoaren esparruko diru-laguntzak justifikatzeko kontuak berrikusteko lanak egiteko kontu-auditoretzaren jarduketa-araua onartzen da.

4. 36.000 eurotik beherako dirulaguntzetarako, dirulaguntzak ematen dituzten deialdiek, hitzarmenek edo ebazpenek zehatz dezakete justifikazio-kontu sinplifikatua bitartez justifikatzea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamenduak 75. artikuluan xedatutakoaren babesean. Kontuak artikuluko horren 2. atalako a), b) eta c) idatz-zatietan eta, hala badagokio, d) idatz-zatian eskatzen duen informazioa izango du. Nolanahi ere, deialdiak, ebazpenak edo hitzarmenak hala zehazten duenean, langileen gastuei eta emandako zenbatekoaren % 10etik gorako gastuei buruzko justifikazioa aurkeztu beharko da, eta proposamenaren egileek bete dutela justifikatu ere bai.

5. Salbuespenez, dirulaguntzak ematen dituzten deialdiek, hitzarmenek edo ebazpenek zehatz dezakete moduluen bitartez justifikatzea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamenduak 76. artikulutik 79. artikulura bitartean xedatutakoaren babesean.

6. Dirulaguntzak Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamenduak 80. artikuluan aurrez ikusitako kontabilitate-orriak aurkeztuta justifikatu daitezke.

7. Dirulaguntza nazioarteko erakunde bati ematen zaionean, deialdian zehazten diren dokumentuen bitartez justifikatu ahalko da, halako erakundeentzako justifikazio-sistemak eta protokoloak abiapuntutzat hartuta.

23. artikulua. — *Justifikatzeko epea*

1. Oro har, dirulaguntza 45 egunen buruan justifikatuko da, dirulaguntzaren xedea edo jarduera egikaritzen denetik zenbatzen hasita, hori gauzatzeko epea zehaztu bada.

Dena den, urteko ohiko jarduerak finantzatzera bideratutako dirulaguntzen kasuan, hurrengo urteko otsailaren 28a izango da dirulaguntza justifikatzeko epemuga.

2. Behin igarota ezarritako epea administrazio-organo eskudunaren aurrean justifikaziorik aurkeztu gabe, horrek onuradunari eskatuko dio, luzatu ezin daitekeen hamabost eguneko epean, aurreko artikuluan ezarritako ondorioetarako aurkez dezan. Xedatutako epean justifikaziorik aurkezten ez bada, dirulaguntza itzuli egin beharko da eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritako erantzukizunei aurre egin beharko zaie.

24. artikulua. — *Dirulaguntzen finantza-kontrola*

1. Dirulaguntzen finantza-kontrolak ondorengoak egiaztatzea du helburu:

a) Onuradunak dirulaguntza behar bezala eta zuzen lortu duela.



- b) Onuradunek eta erakunde laguntzaileek dirulaguntza kudeatu eta aplikatzean eskakizunak bete dituztela.
- c) Onuradunek eta erakunde laguntzaileek dirulaguntza behar bezala eta zuzen justifikatu dutela.
- d) Onuradunek eta erakunde laguntzaileek aurkeztutako justifikazioaren arabera, dirulaguntzak finantzatu dituen eragiketen errealitatea eta erregulartasuna.
- e) Diruz lagundutako jarduerak behar bezala eta zuzen finantzatu direla.
- f) Onuradunek eta erakunde laguntzaileek Administrazioari aitortu ez dizkioten gertaerak, inguruabarrak edo egoerak egotea, baldin eta eragina izan badezakete diruz lagundutako jardueren finantzaketan, diru-laguntza behar bezala lortu, erabili, baliatu edo justifikatzean, bai eta harekin finantzatutako eragiketen errealitatean eta erregulartasunean ere.

2. Dirulaguntzen finantza-kontrola egiteko eskumena Udaleko Kontu-hartzailetzak du, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak aurrez ikusitako edozein bitartekoren bidez eta hartan zehaztutako baldintzetan gauzatuko da.

3. Onuradunek, erakunde laguntzaileek eta dirulaguntzaren xedearekin edo bere justifikazioarekin zerikusia duten hirugarrenek lankidetzan jardun beharko dute, eta Udaleko Kontu-hartzaileak nahiz finantza-kontrolaren zereginen atxikitako funtzionarioek beren kontrol-funtzioetan eskatzen duten dokumentazioa eskuratuko dute.

25. artikulua.— Ebazpena aldatzea

1. Dirulaguntzak emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzean, baita helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortzean ere, ematen dituen ebazpena aldatu ahalko da, araudian xedatutako baldintzetan.

Bidezkoa bada, organo emaileak, arrazoitu ostean, diruz lagundutako jarduerarako eskaeraren unean aurkeztutakoarekiko azkenean gauzatutako gastua eta hasieran aurrez ikusita ez zeuden beste finantzaketa-iturri batzuk ikusirik, dirulaguntzaren zenbatekoa dagokion zati proportzionalen murriz dezake, betiere udal-finantzaketaren ehuneko bera mantenduta. Xede horrez, emandako zenbatekoa aldatzeko eta, bidezkoa bada, dagoeneko ordaindu diren zenbatekoak itzultzeko erabaki egokia hartu beharko da.

2. Pertsona edo erakunde onuradunek eska diezaiokete organo emaileari salbuesenez emate-ebazpena aldatzeko, diruz lagundutako jarduera edo proiektua egikaritzea zaildu edo aldatzen duten ustekabeko inguruabarrak azaltzen direnean edo jarduketaren bide onerako beharrezkoa denean. Eskaera baimen daiteke, baldin eta dirulaguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada eta hirugarrenen eskubideak kaltetzen ez badira. Horrez gain, jarduera egiteko epea amaitu baino lehen aurkeztu beharko da.

26. artikulua.— Obligazioa aitortzeko eta ordaintzeko prozedura

1. Orokorrean, dirulaguntzaren betebeharra onartu eta ordaintzeko pertsona edo erakunde onuradunak justifikatu beharko du dirulaguntzaren jarduera, proiektua, helburua edo portaera bete dela, ordenantza honetan xedatutako baldintzetan.

Haatik, justifikatu baino lehen ordainketa aurreratuak egin daitezke, dirulaguntzaren izaera eta helburuekin bat etorritik, hari atxikitako jarduketak gauzatzeko finantzaketa gisa funtsak entregatu behar direnean.

Ordainketa aurreratuen prozedura, baldintzak eta gehieneko ehuneko emateko deialdi, hitzarmen edo ebazpenean zehaztuko dira.

2. Pertsona edo erakunde onuradunei ezingo zaizkie ordainketa aurreratuak egin hartzekodunen konkurtso boluntarioa adierazteko eskaria egin dutenean, edozein prozeduran kaudimengabetzat jo direnean, hartzekodunen konkurtsoan deklaratura daudenean—konkurtso horretan hitzarmen bat ezarri bada salbu—, epailearen esku-hartzearen menpe daudenean edo Konkurtsoaren Legearen testu bategina onesteko maiatzaren 5eko 1/2020 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera desgaituta daudenean, hartzekodunen konkurtsoa kalifikatzeko epaian finkatutako desgaitze-epealdi hori oraindik amaitu gabe egonik.



3. Era berean, konturako ordainketak egin ahal izango dira, aurkeztutako justifikazioaren pareko zenbatekoan, eta ordainketa zatikatuak egitea ekarriko dute, diruz lagundutako ekintzak gauzatzen diren heinean ordaintzeko.

Ordainketa aurreratuen prozedura, baldintzak eta gehieneko ehunekoa emateko deialdi, hitzarmen edo ebazpenean zehaztuko dira.

4. Nolanahi ere, ezingo da dirulaguntza ordaindu pertsona edo erakunde onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren aurrekoak eguneratuak ez dituen bitartean edo itzultzeko ebazpena dela eta zorduna den artean.

5. Betebeharra onartu eta ordainketa erabakitzeke organo eskudun bera da dirulaguntza ematea erabaki zuena, dirulaguntza jarraitzez arduratzen den unitate izapidegileak proposamena egin ondoren.

6. Ordaintzeko proposamenarekin batera, dirulaguntza jarraitzen duen unitate izapidegileak txostena eman beharko du ondorengo hauek idatziz jasoak uzteko:

- a) Zati bateko justifikazioa edo osoa, ordainketa zatikatuen aukeraren arabera, ondoren ordaindu behar diren dirulaguntzen kasuan.
- b) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 37. artikuluan aurrez ikusitako arrazoi batengatik, kobratzeko eskubidea galdu dela adierazten duen ebazpena edo dirulaguntza itzultzeko deklarazio-ebazpena ez direla eman.
- c) Dirulaguntzaren organo emaileak, kautelaz, onuradunari edo erakunde laguntzaileari dirulaguntzaren ordainketa edo ordaintzeaz dauden zenbatekoak ez dituela eten.

7. Unitate izapidegileak betebeharra onartzeko eta ordaintzeko proposamen orori erantzen dizkion txostenetan gainera berariaz adierazi beharko da:

- a) Aurreko urteetan helburu bererako emandako dirulaguntzak behar bezala justifikatu direla.
- b) Onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren aurrekoak eguneratuta dituela eta itzultzeko prozeduraren bidez zorduna ez dela. Horretarako, ordenantza honek 9. artikuluan xedatutako bitartekoak erabiliko dira, eta horretan xedatutako baldintzei erreparatuko zaie.

27. artikulua. — Dirulaguntzen konkurrentzia eta bateragarritasuna

Deialdiak onar dezake edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutik, estatutik edo nazioartetik, beste dirulaguntza batzuk lortzea, baldin eta haien zenbatekoak, isolatuta edo bestelako dirulaguntzekin elkartuta, diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen ez badu edo, bidezkoa bada, diruz lagundutako jarduera estaltzeko eskatutako finantzaketa-zenbatekoa murrizten bada.

28. artikulua. — Itzultzea

1. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 37. artikuluan xedatutako kasuetan, bidezkoa da jasotako zenbatekoak itzultzea eta dirulaguntza ordaindu zen egunetik itzultzea erabakitzen den egunera arte berandutze-interesak eskatzea.

2. Dirulaguntzak itzultzeko prozedura Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak administrazio-prozedurei buruz dituen xedapen orokorren arabera arautuko da, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta haren Erregelamenduak ezartzen dituen berezitasunak gorabehera.

3. Pertsona edo erakunde onuradunaren betetze-maila modu adierazgarrian erabat betetzera hurbiltzen denean eta hark zalantzarik gabe konpromisoak asetzerara bideratutako jarduketa egiaztatzen duenean, dirulaguntza emateko ezarritako baldintzen ez-betetze mailaren irizpideetara joko da, oinarriei, araudiari edo emateko erabakiari jarraikiz.

**29. artikulua.— *Arau-haustek eta zehapenak***

1. Arau-hausteen eta zehapenen araubidea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak IV. tituluan xedatutakoa izango da.

2. Dirulaguntzen arloan zehapenak jartzeko administrazio-espeditentea izapidetuko da. Nolanahi ere, horretan erabakia hartu baino lehen pertsona edo erakunde interesdunari entzungo zaio, eta Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak xedatutakoarekin bat etorri izapidetuko da.

3. Zehatzeko aurreko puntuko administrazio-espeditentea Estatuko araudiak arautzen duen zehapen-gaitasuna erabiltzearen eremuan izapidetuko da, baina Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak eta haren Erregelamenduak aurrez ikusitako berezitasunak izango ditu.

XEDAPEN GEHIGARRIAK**Lehenengoa.— *Hezkuntza, kultura eta zientziaren arloko edo beste edozein izaeratako sariak eta bekak dirutan, publizitatearen eta konkurrentziaren araberakoak badira*****1. *Lege-araubide aplikagarria***

Onuradunak eskatu osteko sariak eta bekak emateko onesten diren deialdiak xedapen gehigarri honetan ezartzen denaren arabera arautuko dira. Hori izan ezean, azaroaren 17ko 38/2003 Legeak eta haren Erregelamenduak xedatutakoari erreparatuko zaio.

2. *Publikotasuna*

Sari eta beken deialdiak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira. Horiez gain, deialdirako organo eskudunak zehazten dituen moduan eta bitartekoak erabiliz argitara daitezke.

3. *Partaideen baldintzak eta betebeharrak*

Deialdietan parte hartu ahalko dute pertsona fisikoek, juridikoek edo erakundeek, parte hartzeko berariazko baldintzak betetzen badituzte eta, gainera, ordenantza honen 9. artikuluan xedatutakoaren arabera, erantzukizunpeko adierazpenaren bidez pertsona edo erakunde onuradun izateko gainerako eskakizun orokor guztiak betetzen dituztela ziurtatzen badute.

Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren aurrekoak eguneratuak eta dirulaguntzak itzuliak izateari dagokionez, balorazio-epaimahaiak proposatu ondoren, baldintza orokorrak irabazleari saria eman baino lehen ziurtatu eta egiaztatuko dira, eta ezinbestekoa izango da horiek egunean izatea ordaintzeko.

4. *Deialdiaren edukia*

Sarien eta beken deialdiek gutxienez honako hauek izango dituzte:

- a) Deialdiari xedapen gehigarri honetan adierazitakoa aplikatuko zaiola azaltzea.
- b) Deialdiaren helburua eta xedea.
- c) Zein aurrekontu-kredituri egotziko zaizkion sariak eta bekak zehaztea.
- d) Eman behar diren sarien eta beken zenbatekoa.
- e) Partaideek bete beharko dituzten berariazko baldintzak eta ziurtatzeko modua.
- f) Prozedura izapidetzeko eta ebazteko organo eskudunak azaltzea.
- g) Parte-hartzaileek bete behar dituzten baldintzak ziurtatzeko dokumentazioa eta saria ematea eragingo duten lanak, obrak, dokumentazioa edo beste edozein ekintza ala azalpen aurkezteko modua, epea eta tokia.
- h) Sariak eta bekak emateko balorazio-irizpideak.
- i) Zehazten diren ebaluazio-irizpideekin bat, deialdiaren xede den balorazioa egiteko eta saria ala beka erabakitzeko epaimahaiaren osaera. Epaimahaiaren eraba-



kiak aktan idatziko dira, eta, xede horrekin, halako deialdietan dirulaguntzen kide anitzeko organo gisa jardungo du.

- j) Sariak eta bekak emateko prozedura: izapidetu, ebatzi eta sariak eta bekak emateko izapideak.
- k) Deialdian bestelakoa adierazten ez bada, ebazpen proposamenean baztertuko da entzunaldiaren izapidea, prozeduran ez baitaude eta ez baitira kontuan hartuko bestelako alegazio eta frogak hautagaiek aipatutakoak baino.
- l) Ebazteko eta jakinarazteko epea.
- m) Ebazpenak administrazio-bidea amaitzen duen adieraztea eta, bestela, errekursoa zer organoren aurrean jar daitekeen azaltzea.
- n) Sariak eta bekak ematen direnean jakinarazteko edo publiko egiteko bitartekoak.
- ñ) Deialdian parte hartzean hautagaiek oinarri guztiak onesten dituztela adieraztea.
- o) Sariak eta bekak ordaintzeko sistema.

5. *Aurrekontu-izapideak eta sariak eta bekak ordaintzea*

Sariak eta bekak eman baino lehen, nahitaezkoa da kreditu egokia eta nahikoa egoitea eta deialdia onesten duen erabakiaren bidez gastua baimentzea.

Hautagai zehatz eta jakinari emateko proposamena balorazio-epaimahaiak egingo du, eta organo izapidegileak organo emaileari helaraziko dio txosten teknikoarekin batera. Txostenean berariaz geldituko da idatziz jasota eskura duen informazioaren arabera onuradunak saria lortzeko baldintza guztiak betetzen dituela eta zerga-betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzaren aurrekoak eta itzultzeko ebazpenaren ondoriozko zorrak eguneratuak dituela, ordenantza honen 9. artikuluan xedatutako baldintzetan.

Hautagaiak sariaren onuradun izateko baldintza guztiak betetzen dituela ez badu ziurtatzen, sariaren irabazlea izendatzeko erabakia har daiteke, hala badagokio, baina betebeharra onartzeko eta ordaintzeko erabakirik gabe, hau da, ezer jasotzeko eskubiderik gabe.

Ordaindu baino lehen betebeharra onartzeko kontabilitate-dokumentuan zerga-atxikipena egingo da, indarreko legediak hala xedatzen duenean.

Sariaren hartzailearen alde dirutan betebeharra onartzen duen ebazpenak berariaz jaso beharko du indarrean dagoen legeriak hala ezartzen duenean egin beharreko zerga-atxikipena.

6. *Sariak eta bekak justifikatzea*

Deialdian, ordenantza honetako 22. artikuluan jasotakoez bestelako justifikazio-moduei buruzko berezitasunak jaso ahal izango dira, baldin eta saritutako edo bekatutako lana egin izana ziurtagiriaren bidez soilik justifikatzen bada saria edo beka lortu dela.

7. *Hautagai edo pertsona saritu edo bekadunen zerrenda jendaurrean jakinaraztea*

Saritu edo bekadunen zerrenda argitaratzean eta sarituak edo bekadunak izan ez diren hautagaiak ala baztertutakoak jakinaraztean, datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren proportzionaltasun-printzipioari erreparatuko zaio, batez ere sarituak edo bekadunak izan ez diren pertsonen saria edo beka ez lortzeagatik publiko egitean ez kaltetzeko.

8. Sariaren eta/edo beken berezitasunak kontuan hartuta, deialdiak, modu justifikatuan, beste aurkezpen-modu batzuk ezarri ahal izango ditu, aurrez aurre eta/edo telematikoki egokiagoak, herritarrek sari hauetan parte har dezaten errazteko. Eskatzailearen nortasuna soilik egiaztatuta ahal izango da saria edo beka emateko proposatutakoan aldean.

Bigarrena. — Dirulaguntzak espezieetan

1. Hirugarrenei entregatzeko soilik eskuratu diren ondasun, eskubide edo zerbitzu entregak espezieetan emandako laguntzat hartuko dira, eta ordenantza honi atxikita geratuko dira, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badira:



- Onuradunen zuzeneko kontraprestaziorik gabe ematea.
- Ematean helburu zehatza betetzea, proiektua gauzatzea, jarduera burutzea, portaera berezia hartzea (egina edo garatzea), edo egoera bati erantzutea, eta onuradunak zehazten zaizkion betekizun material edo formalak betetzea.
- Proiektuak, ekintzak, jokabideak edo egoerak onura publikoko edo interes sozialeko jarduera bultzatu ala helburu publikoa sustatu nahi izatea.

2. Aplikatzekoa den guztirako, espezieetan emandako laguntzatzetarako aurreko xedapenean dirutan emandako sari edo beketarako aurreikusitakoari jarraituko zaio, ondorengo berezitasun hauek izanik:

- Eman beharreko ondasuna erostean kontratuei buruzko legedia bete beharko da, eta aurrekontuko bigarren kapituluaren kargura, dagokion kontratuaren bidez egingo da, horretarako, gastu-baimen egokia beharko delarik.
- Ez da egiaztatu beharko zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzaren aurrekoak eta dirulaguntzen itzultze-zenbatekoa eguneratuta dituela espezieetan emandako sariaren onuradun izateko, zenbatekoa, hartzaileko banatuta, 1.500,00 eurokoa edo hortik beherakoa denean. Aipatutako zenbatekotik beherako gauzazko sariak emateko ebazpenak ez du alde aurretik fiskalizatu beharrik izango.
- Gauzaz jasotako saria itzuli behar dela aitortzen denean, itzuli beharreko zenbatekotzat hartuko da ondasun, eskubide edo zerbitzua erosteko prezioaren zenbatekoa.

Hirugarrena. — *Jardueretako hirugarren partaideentzako konpentsazio ekonomikoak*

1. Planteatzen diren kultur jarduerak, hala nola lehiaketak, kaleko erakustaldiak, erakusketak, lehiaketak, etab., antolatu eta sustatzeko, gaiari buruz berariaz aurrez ikusi edo araututakoaren esparruan eta aplikagarria izan daitekeen gainerako araudiaren babesean, jardueretan dirulaguntza bakarra, lehen azaldutakoaren ildotik, sariak edo beka ematea bada; Getxoko Udalak eta haren erakunde autonomoek jardueran parte hartzeagatik gastuak konpentsatzeko zenbatekoak eman eta ordain ditzakete, honako muga eta baldintza hauei jarraikiz:

- Jarduera onetsi eta arautzeko erabakiak berariaz aurrez ikustea.
- Nolanahi ere, jardueran parte hartzeagatiko gastuei erantzutea, besteak beste, lokozioa, joan-etorriak, elementuen garraioa, mantenu- eta otamen-dietak, etab. eta, gainera beste kontzeptu batean ez lagundu edo ordaintzea.
- Inola ere pertsona fisiko partaide bakoitzeko 3.000,00 euro ez gainditzea. Ordaindu beharreko zenbateko zehatza jarduera arautzeko erabakian azalduko da eta, edozelan ere, gastu-motaren arabera, logika onez gainditzen ez dena eta arrazoizkoa izan daitekeena errespetatu beharko da.
- Ez da egiaztatu beharko zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzaren aurrekoak eta dirulaguntzen itzultze-zenbatekoa eguneratuta dituela konpentsazio ekonomiko hauen onuradun izateko.
- Gastu hau justifikatzeko pertsona fisiko hartzaileak edo juridikoaren izenean hartzaileak hartu-izana sinatzea nahikoa izango da. Azkeneko kasuan, zenbait hartzaile egongo dira elkarte baten barruan multzokatuta.

2. Lehiaketetan sariak edo beka emateko balorazio epaimahaietako eta batzordeetako partaideen dietak eta ordainsariak, era berean, deialdiak onesteko oinarri edo erabakietan azalduko dira.

Laugarrena. — *Alkatetza gaitzea Ordenantza aldatzeko*

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen Lehen Xedapen Gehigarrian xedatutakoaren arabera, Alkatetza gaitzen da Ordenantza honetan edozein aldaketa sar dezan, nahitaez aplikatu beharreko lege-aldaketei soilik erantzuten diena eta betekizunak aldatzea edo zenbatekoak edo ehunekoak automatikoki egokitzea da-



kartena. Hori berariaz adieraziko da, eta horien berri emango zaio berehala Osoko Bilkurari, berresteko.

XEDAPEN IRAGANKORRA**Bakarra. — Prozeduren araubide iragankorra**

1. Dirulaguntzak emateko prozedurak dagoeneko ordenantza hau indarrean jartzen denean hasita badaude, hastean indarrean zegoen araudia aplikatuko zaie. Xede horrez, norgehiagokaren bidezko dirulaguntzetarako prozedura deialdia argitaratzen denean hasiko da eta zuzeneko dirulaguntzen kasuan, berriz, emateko ebazpena egin edo hitzarmena sinatzen denean.

2. Finantza-kontrola, itzultze eta egintzak ikuskatzeko prozedurak indarrean jartzen denetik izango dira aplikagarriak.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Dirulaguntzak emateko udal-ordenantza, 2004ko abenduaren 30ean behin betiko onetsitakoa, indargabetzen da.

AZKEN XEDAPENAK**Lehenengoa. — Lege-araubidea**

Ordenantza honek aurrez ikusten ez duen guztirako Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsitako haren Erregelamendua eta, modu ordezkatzailean, Herri Administrazioen Administrazio Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/15 Legea eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legea izango dira aplikagarriak.

Bigarrena. — Indarrean jartzea

Ordenantza hau indarrean jarriko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta hurrengo hamabost egun baliodunera.